

## **EUSKARA ETA KAZETARITZA**

*Egoitza, (Bilbo), 1994.02.26*

*Antton Aranburu Bengoetxea*

Euskaltzaindiaren 75. urteurrena ospatzen dugun honetan, euskararen erabilera zuzenari buruzko Jardunaldiak antolatu ditu erakunde honen Jagon Sailak, hain zuzen ere, euskara jagoteko betidanik, sortze-sortzetik, izan duen kezkarri erantzunez. Euskararen batasunaz gain, beraz, euskararen erabilera zuzenak kezkatzen du Euskaltzaindia, bere hitzetan esateko “asko baitira nonahi ikusten ditugun askokeria eta okerreko erabilerak” edota “euskararen erabilera kopuruz handitu bada ere, zuzentasunez gehitu denik ez baitirudi”. Ondorioz, hiru sail jakinetan, hau da, Irakaskuntzan, Administrazioan eta Komunikabideetan euskararen erabilera zuzena nola gara eta berma daitekeen gogoeta egiteari ekin dio Euskaltzaindiak aipatutako jardunaldiotan.

Komunikabideen esparrutik hitz egitea dagokit niri, Euskaltzaindiko zenbait lagunen ustez hainbat urteko nire kazetari-esperientziak, bai egunkarian eta bai irratian, gai honi buruz hitz egiteko egokierarik ematen didalakoan. Bego horretan, aldezturik eskertzen dudana nireganakoste uste hori, askotxo uste izatea izan daitekeen arren.

## **EUSKARA ETA KOMUNIKABIDEAK**

Komunikabideen mundutik euskara aztertzen hasita, nik uste baieztapen bat egin behar dela lehen-lehenik, hau da, euskara gai dela gure eguneroko bizitza adierazteko, gai dela gure gizartearen garapen zientifiko eta tekniko islatzeko, eta bere gaitasun horri esker, guztiok garela gai, informazioa bide, euskaraz bizitzeko eta euskaldun izateko.

Besterik da helburu hori lortzeko dauzkagun zailtasunak aitortzea, horretarako jarri ditugun baliabideetan ikusten diren hutsuneak etabar, kontuan hartzea, baina lehen baieztapena hori da. Egia hori aitorturik, geure iraun-gogo eta borondatearen gain jarri behar da gainerakoa, beti ere, bizitzeko era bat baino gehiago daudela kontuan edukirik, hau da,

sasoiko eta geure etorkizunaz seguru eta harro, edota, alderantziz, makal-antxa eta geure buruarekiko zalantzaz beterik.

Gure hizkuntzaren osasun eta etorkizunera mugatzen dugu, jakina, aurreko gogoeta hori, euskara baita, euskal komunikabideen ikuspegitik, noski, gure azterketa honen helburu. Bizirik nahi dugunaren seinale, dudarik gabe, aspaldi txertatu da gure artean euskarari buruzko kezka. Guztiok kezkatzen gaitu aspaldi euskarak, jatorrago nahiko luketelako batzuek, batuago eta adierazkorrago beste batzuek, baina, batez ere, komunikabideetara mugatuz, komunikatiboagoa eta, beraz, ulergarriagoa nahi genukeelako guztiok.

Horrekin batera, bigarren baieztapen bat ere egingo nuke euskal kazetaritzaren ikuspegitik, kazetaritzari buruzko gogoeta orokor bezala. Fenomeno sozial bezala hartzen badugu, oso ezaugarri bereziak dituela esango nuke euskal kazetaritzak. Lehenik eta behin, haren tradizio urria azpimarratu behar da, ia-ia gaur goizekoa baitugu. Bestalde, garbi dago gizarte elebidun eta diglosiko batean sortu eta ari dela garatzen euskal kazetaritza eta, ondorioz, nekez hitz egin daiteke espreski “euskal” kazetaritza batez, ez delako osoki eta erabat euskalduna den gizarte bateko fenomeno. Euskal kazetaritzaren profesio-esparrua zeinen murrizta den ikustea aski, oraindik ez baikara ez editorialista, ez zutabegile, ez erredaktore politiko, ez guda-korrenpentsari etabar, ezagun edo nabarmenagirik sortzeko gauza izan.

Beraz, bere iturri eta sorburuan erdalduna dugu gure kazetaritza, eta ondoren, neurri batean bakarrik iristen da euskarazko informazio-bide eta albiste izatera. Beste modu batera esanda, kazetaritza nagusiki fenomeno sozial erdalduna da gurean, baina hala ere, gaur gaurkoz nagusi diren erdarazkoen parean, baditugu fenomeno horren berriemate eta mezugintzan euskaraz ari diren bitartekoak ere, euskal komunikabideak alegia.

## **KOMUNIKABIDEETAKO ZENBAIT EUSKARA-ARAZO**

Komunikabide hauek kontuan, aipa dezadan jarraian komunikabideetako euskarari dagokion zenbait arazo. Baina ezer baino lehen, baieztapen orokor bat. Nik uste euskara ari dela bere bidea egiten eta, orokorki, gure ikusentzulea eta irakurlea ari direla poliki-poliki komunikabideetako euskara bere hizkuntzatzat identifikatzen.

Esan beharrik ez dago, horixe dela hain zuzen ere komunikabideetako hizkuntza legezatzeko arau nagusia, alegia, irakurleagoak edo entzuleagoak identifika dezala hizkuntza hori bere hizkuntzatzat. Hau da, ira-

kurle batek euskara hori bere hizkuntza dela aitortzen badu, erraza eta xamurra gertatzen zaiolako berehala ulertzen badu eta, horregatixe, zailtasun berezirik gabe barneratzen badu, beste gabe izango da euskara hori komunikabideetarako hizkuntza egokia.

Izan ere, komunikabideetako hizkuntzak herritarren gehiengoak ahotan darabilen hizkuntzatik ahalik eta hurbilekoena izan behar du, hots, errealitatea adierazteko hitzunek erabiltzen duten hizkuntza berori. Beraz, garbi dagoena da, hizkuntz komunitateak nagusiki hitz egiten duen hori izango dela bereziki komunikabideetako hizkuntza estandarra, hau da, masa-komunikaziorako hizkuntz eredu egokia.

Esan bezala, hizkuntz eredu horretan eta hizkuntzaren identifikazio horretan, nik uste euskara bere bidea ondo xamar ari dela egiten. Baina badira arazo eta zailtasunak ere, eta nik uste nagusienetako bat egiten den euskaran ez baino kazetari-hizkuntzan dagoela.

Jakina da komunikabideetako hizkuntz ereduak espreski baztertu behar duela normatibarekin bat ez datorren guztia eta, horrez gainera, masaren hizkuntza estandarrari ez dagokiona. Baina komunikabideei dagokienez, hizkuntzari buruzko bereizketa bat egin behar da; hots, batek hizkuntza mintzatua edo ahozkoa, eta, bestetik, hizkuntza idatzia bereizi behar dira, garrantzi handiko bereizketa gertatuko baita hau, ondoren, kazetari-hizkuntz eredu zehatza aztertzeko.

Pello Esnal pedagogoari jarraituz, hizkuntza bakoitzaren berezitasunak mintzatuan, ahozkoan gauzatu dira. "Lehenengoz eta behin hizkuntza mintzatuan hezurramitu dira hizkuntza baten ezaugarriak. Hizkuntza hori erabileraren poderioz joan da moldatuz, taxutuz eta bere bereizgarri eta ezaugarri hornituz; eta ahozko erabilera izan da denbora luzean hizkuntzaren erataile bakarra" (1). Ia-ia gure belaunaldira arte, esango genuke, hots, ikastola-mugimenduaren eraginez, hizkuntzaren begi-irudia lantzen hasi garen arte.

Oso garrantzizkoa da hau azpimarratzea, gertakizun honen ondorio baita komunikabideetako euskararekin planteaturik daukagun arazoa. Galdera nagusi baten aurrean gaude: non oinarrituko dugu gure komunikabideetan egunero egin behar dugun euskara hori?

Gerora esango dugunez, nahitanahiezko ezaugarri du kazetari-hizkuntzak mintzairarekiko hurbiltasuna, batez ere mintzaira kultoarekikoa, hain zuzen ere, hitz egiten ari denak bezala idatzi behar duelako kazetariak, eta ez, idazten ari denak bezala, hau da, ahoan sortzen zaiona papereratu behar du kazetariak. Beraz, aurrez egindako galderari eran-

---

(1) *Euskal kazetarien jardunaldiak*, 31. orr.

tzunez, garbi dago ahozko euskararen oinarritu beharko dugula kazetari-hizkuntza.

Baina ez al dugu guztiok ere ahoz hitz egiten?, galde dezake norbaitek; edo, zer esan nahi dugu ahozko euskara diogunean? Inoiz elebakarrak izan bagara ere, gaur egun gutxienez elebidun gara euskaldun gehienok; hots, hizkuntza biak jokatzen ditugu eguneroko bizitzan. Alabaina, ezin esan bi hizkuntzen arteko harreman hori, lehen-lehenik gure pentsamenduan eta gero gizartean bertan, gatazkatsu gertatzen ez denik, azken batean, hizkuntzek ere elkar jateko joera bat baitute, hiztunen baimenarekin, jakina.

Dudarik gabe, hiztun batek zer hizkuntzatan pentsa, hizkuntza hura xe harengan nagusi besteen gainetik. Gure artera etorritik, erdaraz pentsatzen duten euskaldunak gero eta gehiago direla jakinik, garbi dago, Patxi Altunak esan bezala, gaztelera dela euskararen zimenduak harrez jotzen ari dena eta ondorioz, gaztelaniatzea dela euskararen ajerik nagusienetakoa; eta hala izanik, aje horrek harrapaturik gauzkala, kazetariok tarteko, euskara bizibide eta lanabes dugun asko eta asko.

Beraz, guztiok mintzo gara ahoz, baina nekez esan daiteke guztiok darabilguna ahozko euskara denik; ez behintzat nabarmenki gaztelera pentsatzen dutenen euskara hori. Zein da, orduan, eredutzat nahiko genukeen euskara, edo zeintzuk euskara horren ezaugarri nagusiak?

Teoria bat gorpuzteko balioko luketen ur sakonagoko azterketetan sartzeko asmorik gabe, egiaztapen batzuk azpimarratzera mugatuko gara hemen. Definizioz zehatzenak bezainbat balio diezaguke, adibidez, bi esatariren artean edo bi irakurgairen artean soma dezakegun diferentziak, batez ere, batak eta besteak darabilten euskararen ulergarritasun edota irakurteraztasunean halako alde nabarmen bat ikusten badugu.

Bestalde, esan beharrik ez, beti da normalean norberak pentsatzen duen hizkuntzan idatzitako testu bat jatorriz norbere pentsamendukoa ez den beste hizkuntza batean idatzitakoa baino argiago eta osoago; beraz, hizkuntzaren kalitateak badu zerikusirik norbere pentsamendu-hizkuntzarekin.

Baina, azken batean, bada ahozko hizkuntzaren elementu bereizgarri bat: belarria. “Zerbait izatekotan —dio Pello Esnalek— belarriaren araberakoa da ahozko euskara: entzunaz jasotzen dena, entzuna izateko moldatua, entzunez ulertzeko modukoa”. Eta hori horrela izanik, ez da kazetari batentzat honako hau baino aholku gomendagarriagorik: “belarria izan behar du idazleak lanean gidari eta epaile; ez da nahikoa begiarekin eta gramatika-arauekin. Belarritz idatzi behar dela, alegia; belarritz idatzi eta oihartzunez epaitu, zuzendu eta berridatzi”.

Urrutirago joan gabe, “euskal sena” esanda uler dezakegu funtsean, hitz bakar batez, esaten ari garen hau guztia. Alabaina, ba ote sena baino subjektibitate handi eta, aldi berean, konplexuagoko konturik? Dena dela, zehazten zaila bada ukatzen zailago sen hori eta berak duen garrantzia hizkuntzaren moldaketan.

Baina itzul gaitezen lehen eginiko galderaren harira. Aitortu ere aitortu dugu ahozko euskararen oinarritu behar dugula kazetari-hizkuntza, baina guztiok dakigu hizkuntza hori anitza dela, segun eta zer medio erabiltzen den; hau da, badela irrati-hizkuntza bat, telebista-hizkuntza bat, egunkari-hizkuntza bat eta, azkenik, zinema-hizkuntza bat ere.

Gauzak sinplifikatuz, bi hizkuntz motarekin gera gintezke: ahozko kazetaritzako hizkuntza (irradi eta telebistakoa) alde batetik, eta idatzizko kazetaritza edo egunkarikoa, bestetik.

Zeinetarako balio digu ahozko euskarak?, galdetu beharko dugu jarraian, eta hauxe Pello Esnaen erantzuna: “Erraz onar daiteke gure artean ahozko euskara erabili behar dela kazetaritza mintzatuan, eta ahozko euskarak izan behar duela ahozko kazetaritzako gidari eta eredu. Urrutirago doa, ordea, gure ustea: kazetaritza mintzatuan ez ezik, idatzietan ere gidari eta eredu behar luke ahozko euskarak”.

Behar luke eta behar du, esango dugu guk. Ahozko euskara behar dugu kazetari-hizkuntzaren oinarri eta, jakina, egunkariko euskararen oinarri, hain zuzen ere, ahozko erabileran oinarritu behar delako idatzizko erabilera. Honek esan nahi du, legez eta bidez ahozko euskarara jo beharko duela kazetariak kazetaritzako (hots, irrati, telebista eta egunkariko) euskararen eredu bila.

Badu printzipio honek irakurlearen psikologiari zor zaion beste eskakizun bat, eta kazetariak oso kontuan eduki beharko duena: “kolpe bakarrean” ulertuko den euskara bat idatzi beharra, alegia, irakurleari bere irakurketa ahalik eta gehien erraztearren.

Azpitarragarri da puntu honetan irrati-telebistak eta egunkariak bereziki euskaldunontzat izan dezaketen kidesetasun bat. Irrati-mezua berez da iheskorra eta bere horretan suntsikorra behin bakarrik entzun daitekeelako, hots, flash-back delakoaren aukerarik ez diolako eskaintzen entzuleari; haatixe da ahula, berez, ahozko informazioa.

Gauza bera esan daiteke, ordea, euskaldunak irakurtzeko eta, beraz, egunkaria irakurtzeko orain arte duen zailtasuna kontuan hartuz. Irakurleak pott egiten du kolpe bakarrean ulertzen ez duen euskararen aurrean eta, ondorioz, oso nekez ekiten dio esaldia bigarren aldiz irakurtzeari. Beraz, irrati-mezua berez den bezain ahul eta hauskorra da egunkariko mezua ere euskal irakurlearentzat.

Honetatixe dator, hain zuzen ere, kazetaritzako euskararen desafio-rik nagusienetako, Pello Esnalek gogoratzen digun bezala: “erabil dezagun, molda dezagun, hobetsi dezagun kolpe bakarrean ulertuko den euskara; landu dezagun estiloa, kolpe bakarreko irakurketa erraztuz”.

## **ITZULPENA, ARAZO BEREZI**

Esandakoaren argitan, bidezko da gaurko komunikabideek darabilten euskarari buruzko kritika bat egitea, eta are gehiago, hasieran aipatutako kezka edota kexua aintzakotzat hartu nahi bada.

Normaltzat hartu behar da gizarte elebidunetan elkarrekin bizi diren bi hizkuntzen arteko erasan edo eragina, eta, era berean, normaltzat hartu behar, bata bestearen eraginpean hizkuntza biek ere beren jator-tasunean nozitzen duten galera. Hori onarturik ere, ordea, nola justifi-katu gure komunikabideetako euskarari gertatzen ari zaiona? Justifikatu nekez justifikatu, baina arrazoitu, agian arrazoitu bai.

Bistan da alderdi batetik baino gehiagotatik aztertu beharko dela euskal komunikabideetako hizkuntz eredia, baina gure azterketa honi dagokionez, kazetari-hizkuntzaren oinarritzat aipatu dugun ahozko euskararen ikuspuntutikako azterketara mugatuko gara.

Hementxe baitago gure komunikabideetako euskararekin dugun arazoaren esplikaziorik argienetako bat, hots, ez dugula euskara hori ahozkotasunean eta euskara mintzatuan behar hainbat oinarritu. Lehen esan dugunez, ahozko erabileran oinarritu behar da idatzizko erabilera, eta horretantxe huts egin dugu. Garbiago esanda: izatekotan ere irakur-tzeko litzatekeen euskara idatzia ari gara entzuten bereziki telebistaz, eta haatixe gabilta gure entzulearen belarria gozatu ezinik euskara ulergai-zto bat eginez. Alegia, begiaren araberako hizkuntza bat, eta ez belarria-ren araberakoa, ari gara eskaintzen; entzuna izateko moldatua ez den hizkuntza bat, alegia.

Nola litekeen hori? Besteak beste, itzulpengintzan dago kokka, gaz-teleratik euskarara itzultzen diren albiste eta testuetan. Jakina, ez da ko-munikabideetako arazoa bakarrik, irakaskuntza edo administrazioko hiz-kuntzan ere badelako antzeko arazorik, baina guri komunikabideetako alorra dagokigunez, honetaraxe mugatuko gara.

Informazio-iturrien arrotasuna aipatu dugu lehen eta horien artean leku berezi bat hartzen dute gazteleraz idatzirik eskaintzen diren txoste-nek eta, berezi-bereziki, albiste-agentzietatik jasotako albisteeak. Tamalez, noski, baina itzulpegintza da gaur-gaurkoz neurri handi batean euskal

kazetaritza. Hala izanik, berriz, kazetari-hizkuntz eredu propio bat duen hizkuntza batetik (gazteleratik) oraindik bere kazetari-hizkuntza propioa sortu ez duen hizkuntza batera (euskarara) egiten da itzulpen hori, baina, guztion zoritxarrerako, euskararen berezitasun eta barne-egitura kontuan hartu edo errespetatzeke, hots, gaztelaniaren barne-egitura kalkatuz.

Egia da, inon egotekotan itzulpen batean daudela bi hizkuntza beren barne-egitura horretan elkarrengandik hurbilen eta, beraz, kalko bat izateko arriskuan, baina, gure kasuan, behar baino ere hurbilago daudela esango genuke euskal kazetaritzan, sarritan errazegi, jauzi arrisksuegirik gabe, alegia, heltzen baikara euskaratutako albisteetatik gaztelaniara. Beraz, kontua da, gaur egun euskal kazetaritzan egiten den itzulpegin-tzak asko narrasten, arrotzen eta, ondorioz, ulergaitzotzen digula euskara; hitz batez esanda, gaur egungo itzulpen-hizkuntza kazetari-hizkuntzaren etsai dela. Izan ere, testu bat irakurri-ahala irakurritakoa euskaraz jabetzean bailegoke sekretua, eta behin dioenaz jabetuta gero, erdaraz jasotakoa euskaraz egokitu eta berregitean. Beste hitz batzuetan esateko, erdaraz ulertua deskodetu egin behar da, ondoren euskaraz birkodetuta emateko.

Ohar bat egin daiteke hemen, hain zuzen ere kazetaritzako eta beste literatur hizkuntzetako itzulpenen arteko bereizketa azpimarratzeko. Kazetari-hizkuntzaren ezaugarri bereziak kontuan harturik, arras desberdinak dira beren ezaugarri eta helburuetan, alde batetik, kazetari-hizkuntza, hots, informazioari loturiko eguneroko hizkuntza hori, eta, bestetik, nahiz eta orokorki informaziorako izan, beste hainbat literatur testueta-ko hizkuntza; eta, zer esanik ez, are eta desberdinago, kazetari-hizkuntza eta literatur sorkuntzakoa, nobelagintzakoa, adibidez.

Alabaina, bada gure artean, kazetari ikuspegitik behintzat, okerre-kotzat eman behar den teoria bat. Askoren iritziz, euskara puskatu egin behar da gaurko beharrei, eta horien artean behar komunikatiboei, erantzuteko. Besteak beste, gaur arteko literaturan modan egon den uste honek kalte handia egin diezaioke euskal kazetaritzari, batez ere, joera nagusi bezala, eguneroko albiste eta itzulpengintzan gauzatzen bada. Gehiago esango dut: "prentsa kontrakulturala" deritzan horrek izan ditzakeen ezaugarrien artean salatu beharko genuke joera hori. Izan ere, hainbat hizkuntz arau nagusiren aurkako joera bat nabarmentzen dute prentsa-mota horren aldeko diren zenbait kazetari gazte eta modernok.

Baina, azken batean, argitu beharreko kontua beste hau da, alegia, ea kazetari horiek benetako eredu berri bat proposatzen duten ala, hizkuntzari zorretan, egoki idazteko gai ote diren; alegia, gure arazo partikular honetara etorritz, ea kazetari horiek euskal senik baduten ala ez,

eta, ondorioz, euskaraz pentsatuz idazteko gai diren ala ez; azken batean, prolema ez baita erdaraz pentsatzen duenari euskal ulermena errazteko formulak aurkitzea, baizik eta guztiontzat euskal senarekin ados dagoen kazetari-hizkuntz eredu jator bat eraikitzea.

Ondorio gisa, euskararen berezitasunean oinarritutako kazetari-hizkuntza bat sortzen joatea erreibindikatzeko dugu, itzulpengintza barne dela, noski. Horretarako, lehenik eta behin, euskara izan behar du gure kazetari-hizkuntzak, baina, jakina, bere sen eta guzti, bere komunikagaitasunean osoa eta betea izan dadin.

## **KAZETARI-ERREGISTROA: SOLAS MAILAKO KOHERENTZIA**

Hau guztia esanik, azter dezadan, zertxobait bederen, kazetari-hizkuntza, beronen berezitasun bat aztertzeko. Beti ere teoria mailan, kazetari-hizkuntzaren ezaugarri nagusietako bi (zuzentasuna eta egokitasuna), eta horrez gainera, hizkuntza horren oinarria (ahozko euskara) aipatu ditugu orain arte; baina aurrera begira, ikuspegi praktikoa batetik azter dezakegu kazetari-hizkuntza, hain zuzen ere, literatur genero berezi den aldetik, kazetari-erregistroa esan dezakegunaren berezitasuna zertan datzan ikusteko.

Nolanahi ere, beste ezer baino lehen, oinarritzeko ideia bat finka dezakegu inongo azterketetan hasi aurretik: teknika batzuk dominatzean baino gehiago, hizkuntza ondo menderatzean dago kazetari on baten sekretua, kontu eginik, hizkuntzaren erabilpenean agertzen duen segurtasunak emango digula fidelkien kazetari baten kalitatearen berri eta neurri.

Zehazki kazetari-hizkuntza bera aztertu baino lehen, beharrezko da kazetari-mezuari buruzko gogoeta bat. Komunikazioaren aldetik, beti izan behar du kontuan kazetari-hizkuntzak, alde batetik, berehalako efikazia, eta, bestetik, denbora eta hitzen aldetiko ekonomia, esan nahi baita, ahalik eta hitz gutxienaz ahalik eta gauzarik gehien jakinarazi behar du diola kazetariak irakurleari.

Beraz, funtsezko da kazetariarentzat hiru puntutan oinarritutako buru-ariketa hau: a) mezua eta bere osagai nagusiak aurkitzea, b) mezu hori adieraziko duten ideiak lehentasun maila batean sailkatzea, eta c) hizkuntzaren aldetik kontakizun egoki bat burutzea, ez baita ahaztu behar albiste bat idaztea beti dela, presaka ala presarik gabe ibili, ondo jokatu beharreko kontu bat.



Adibide batez esateko, ez dago kazetari-hizkuntzarik testu honetan:

Atzo ekarri zuten Mikel etxera. Hori jakin  
bezain laster, bisitara joan nintzaion. Ez zidan,  
halere, askorik eskertu.

Aitzitik, albiste hori emateko kazetari-hizkuntza egokia beste hau da:

Ez zidan askorik eskertu Mikelek, atzo bere  
etxera ekarri ondoren egin nion bisita.

Hizkuntz eragiketa batera mugatzen da, beraz, kazetariaren mezugintza, eta, orokorki, kazetaritza guztia. Irudi batez esan behar bagenu, albiste bat entzutera edo irakurtzera prestatu den solaskide hipotetiko batekin kazetariak egiten duen ibilaldia izan daiteke kazetari-mezua. Hizkuntza da ibilaldi horretako bidea, haren gainean joango baitira buruz buru kazetaria eta bere solaskidea elkarrekin; eta joanaldi horretan, kazetariak kontatzen diona interesgarri zaion neurrian eta, bestalde, bidean hizkuntz oztoporik aurkitu ezean bakarrik joango dira biak elkarrekin; gainerakoan, bi baldintza horietako batek huts egiten badu, adi ego-teari uko egin eta bere ibilaldia amaitutzat emango du solaskideak, kazetariak bere kasa aurrera jarraituagatik.

Demagun kazetariak kontatzeko daukana interesgarri zaiola bidelagunari, eta, beraz, bidea bera da gure ondorengo aztergai. Eredu bat eraiki behar eta, aldez aurretik hobetsi dugu ahozko euskararen eta belarriaren araberako hizkuntzan oinarritutako kazetari-hizkuntza. Horrela izanik, hitz-katean daukagu elementurik nagusia.

Jakina da, begiaren araberako hizkuntzak hitza duen bezala, belarriaren araberakoak *hitz-katea* duela bere unitatea. Ondorioz, hitz-kateak izan beharko du kazetaritzako euskararen erreferentzi puntu nagusia; izan ere, zenbat eta lotuago eta osoago hitz-katea, hainbat eta ulerterrazago; eta hori, bai ahozko kazetaritzan eta baita idatzizkoan ere, ez baita ahaztu behar idatzia ere "entzun" egiten dela, eta beraz, idatziak ere baduela, Pello Esnalen hitzetan esateko, nota eta hitz soltea baino areago, bere doinu, melodia eta armonia ere. Beraz, bere osotasunean hartu behar da hizkuntza eta ezin da galdu kazetaritzan euskararen osotasuna.

Beraz, perpaus elkarketarako baino areago, testu mailako loturarako (lotura semantikorako, funtsean) balio digute lokailuek, eta haatik, solas mailako lotura edo koherentziaren adierazgarritzat jo behar dira, pragmatika munduan murgilarazten gaituztenez.

Begi bistan da, esaten ari garen hau guztia kazetari-testuak behar duen koherentziagatik azpimarratu behar dela, izan ere, hasieran aipatu

bezala, ezer izatekotan lotura sintaktiko eta semantiko egoki bat duen testu koherentea izan behar baitu kazetari-testuak, hots, testuaren harian etenik gabekoa, eta, beraz, testu ez ezik solasaldi.

Jakina, esaldi desberdinen arteko erlazioaz ari garenez, intonazioa da azpimarratu beharreko beste elementu nagusi bat, izan ere nola egituratu duen hiztunak esaldien arteko erlazioa, halako intonazioa erabiliko baitu eta halako eten-pausak egingo, bereziki perpausen luze-laburra, konplexutasuna eta adierazkortasuna kontuan dituela. Honek esan nahi du, kazetari onak beti eduki behar duela kontuan esaldien erritmoa, beraz, denboraren poderioz, subkonszientea bihurtzen bada ere.

Laburbilduz, berebiziko garrantzia dute lokailuek testuaren koherentziarako, eta, beraz, behar-beharrezko elementu dira kazetari-hizkuntzan, irrati-hizketan, bereziki. Hizkuntza dela medio, kazetariak bere solaskidearekin egiten duen ibilalditzat aipatu dugu lehen kazetari-mezua edo komunikazioa. Hala izanik, berriz, solaskidearen interesa eta arreta ez galtzeak izan behar du beti kazetariaren helburu nagusi, eta horretarako, baliabide aproposagorik ez lokailuak baino.

Izan ere, albiste bat jarraitzerakoan irakurleak oharkabean jasotzen joan behar duen erritmo bat markatzen baitute lokailuek; musikan izan ohi den bezala, barne-pultsazio edo tempo bat markatzen diote testuaz jabetu behar duen irakurleari, bi gauza posibilitatuz: batetik, irakurlea sekuentziaren harian mantenezte, eta, bestetik, irakurle hori, beti ere aurrera bultzaka, mezuaren azken ondorioetara eramatea.

## **ERABILERA ZUZENA DELA ETA**

Kazetari-hizkuntzari buruzko hainbat xehetasun eman ondoren, hizaldiaren azken zatira etorri eta euskararen erabilera zuzena garatzeko egin daitekeenaz mintzatzea dagokit. Bi norabide har ditzake puntu honetan nire gogoetak. Batetik, kazetariari eta bere lanari begira jarri naiteke gogoetagai izan daitekeen zenbait ideia azpimarratzeko. Eta, bestetik, enpresa barruko planteamentu berri baten baitan aurrikusiko nuke erabilera zuzenaren arazoa.

Gure komunikabideetako euskararen alde zer egin daitekeen pentsatzen jarrita, nik uste euskara berarengan baino gehiago kazetariarengan pentsatu behar dela. Arazoa ez baita euskara. Arazoa izatekotan ere kazetaria baita. Beraz, kazetariari begira egin beharko da euskara hobetze aldeko apostua. Kazetariak badaki orokorki hiru direla kazetari-hizkuntza hezuramaitzen duten elementuak (teknika baten erabilpena, mezu baten zabalkundea eta irakurlearen arreta bereganatzea), eta hiru-

rak direla kazetari batek bere ofizioaren jabe izateko kontuan hartu beharrekoak. Hala ere, ofizioari dagokionez, benetako kazetariak jakin behar luke batez ere hizkuntzaren ezagutza sakonetik datorkiola bere trebetasuna eta ez hainbeste bere idazlanean erabili ohi dituen teknika eta formuletatik. Azken batean, kazetari baten nortasuna eta haren estiloa, zerbaiti zor izatekotan, bere jakituria, esperientzia, zentzu eta, azkenik, bere ariketa saiatuari zor zaio. Eta hori guztia, pentsamenduari lotuta, jakina, pentsamenduan baitago sakontasuna eta ez formuletan.

Baina, horrez gainera, beste ideia hauek ere oso kontuan hartze-koak lituzke euskal kazetariak. Lehenik eta behin, denok dakigun hori gogoratuko nuke: euskal komunikabideen esku dagoela hizkuntzaren etorkizuna, hau da, gure irrati, telebista, egunkari eta gainerakoetan entzun eta idazten den euskara hori nagusituko dela gaur-biharko euskal hiztunetan. Ondorioz, nahiz eta, lehen esan bezala, oraindik ez dugun kazetaritza-hizkera propiorik, hau da, ereduzko kazetaritza-hizkerarik, inguruko hizkuntza normalizatueta duten bezala, geu gara hizkuntz eredu, gure lan-tresna euskara bera denez. Eta hemendixe gure erantzunkizuna, beti ere lan-tresna hori gertu eduki eta era egoki batez erabil dezagun.

Bigarren, beti ere egiari zorretan albistearrekiko zintzotasuna eta irakurlearekiko leialtasuna kazetari ororen bi helburu nagusi direla gogorazi ondoren, bere baitara bilduz partikularki kazetari euskaldun batek gogoan eduki beharreko beste errealitate hau azpimarratuko nieke neure lankideei: bere zerbitzari-izaera.

*Euskal kazetarien jardunaldiak* liburuan irakur daiteke euskal kazetari baten gogoeta hau:

“Taldea txiki bati begira diharduen kazetariak, ordea, bizipozez irauteko ere beharrezkoa du zerbitzari-izaera. Euskal kazetariak gutxi baztuen, baztertuen eta behartsuen aldeko aposturik egiten ez badu, nekez utsiko dio ilusioari. Euskaldungo multzo txikia zerbitzatzeko eta gero eta hobeto zerbitzatzeko gogoia eta erabakia hartu behar du euskal kazetariak, nire ustez, irautea nahi badu. Herrigintzan eta euskalgintzan dihardutenen artean bere burua kokatzen ez duen euskal kazetariak ezin utsiko dio etsipenari edo erdarara pasatzeko tentazioari” (2).

Bi hitzetan esateko, militantismorako borondatea eska dakiok, beraz, euskal kazetariari, izan ere, “zoritzarrez euskara komunikabide kokorra delako euskal kazetaria ere gutxietsi egiten baitu gizarteak”.

Hau esanik, arrisku edo gutxienez tentazio batez ohartarazi behar da euskal kazetaria. Edonork daki erdal munduak askoz ere oparago sa-

---

(2) *Euskal kazetarien jardunaldiak*, 49. orr.

ritzen duela kazetaria euskal munduak baino, eta hori, jakina, gure artean, erdaraz esandakoa euskaraz esandakoa baino askoz ere aintzako-tzago hartzen delako. Hori dela eta, badira euskal kazetariaren artean, euskaraz eta erdaraz ari direnen artean, bereziki erdal kazetaritza lantzeko apostu egin dutenak, eta ondorioz, euskaraz kazetaritza-maila on bati eutsiarren, batez ere erdaraz idazten dutenagatik txalotzen direnak.

Jakina, bakoitzaren esku dago aukera hori eta ez dago zer kritikaturik, baina lehenik eta behin, euskaraz “lehen figura”, eta haatixe besteentzat eredu, izango diren kazetariak behar ditu gaur euskal kazetari-tzak bere sinesgarritasun eta prestigioan aurrera egin dezan.

Hirugarren, ez da alferrikako honako arau hau gogoratzea: irakurlearen alde jarri. Bere buruari uko egin eta irakurlearen aldeko apostu egin behar du beti kazetariak; irakurlearen mailan jartzeko asmatu, alegia. Mezulari eta bitartekari izatetik datorkio eskakizun hori, eta ondorioz, irakurlearen mailan jarri bereganatu, bizkarreratu behar ditu irakurlearen arazo, zailtasun eta ezintasunak. Maitasunaren lege nagusia: “Zuk nahi ez duzunik inori ez opa”.

Dagoela irakurlea irakurgai ilun, astun eta nekagarrietatik libre, konpon edo xamur ditzala alde aurretik kazetariak irakurleari ulergaitzotz egingo zaizkion hitz, termino eta gainerako adigai guztiak.

Eta, azkenik, laugarren baldintza baten aipamen egingo nioke kazetari lankideari: euskararekin goza dezala. Edozein langile eta teknikari kualifikatuk bezala berezko dohain eta sena behar du kazetariak ere albiste-ehiztari eta aldi berean berriemate izateko. Baina bere langintza horretan ezinbesteko zaio kazetariari hizkuntzarekiko “borroka”, borroka amultsua, nolabait esateko.

Ez idazlan bezala, eta are gutxiago sorkuntza lan bezala dira gonparagari kazetaritza eta literatura; bi mundu dira. Baina biak ere idazle-ariketa, emozio berbera eragin dezakete eta eragin behar dute idazle eta kazetariaren artean. Horrela bada, hizkuntzarekiko borroka amultsu horretan, hizkuntzarekin gozatu egin behar du kazetariak; hizkuntza bera gozatzeaz batera, hizkuntzarekin gozatu, alegia, lehen-lehenik bere lanarekin eta gero, irakurlearekin identifika dadin. Nekez kazetari on bere albistegintzan hizkuntzaz gozatzeko gai ez dena.

Baina hau guztia baieztatuta gero, kazetariaren eguneroko lanari begira jarri gitezke, enpresa barruko planteamendu batera iristeko. Arestian esan dudanez, euskara hobetzeko apostua kazetariari begira egin behar da, prolema hizkuntza bera baino areago hitzuna baita, hots, kazetaria.

Lehenik eta behin, kazetaria bere eguneroko lanean eta alde zuretik markaturiko bere lan-esparru jakinean aztertu beharko litzateke. Inoiz esana dut albistearen berarizko garrantziaren parean jarri behar dela hizkuntzaren duintasuna ere eta, ondorioz, ez zaiola kazetariari zilegi euskara onik gabeko albisterik.

Baina zer egin eguneroko lan dinamikan gure albistegintza barne-mekanismo baten kontrolpetik pasatzen ez bada? Zenbat kazetari daude gure artean nolabaiteko hizkuntz kontrolik gabe?, edo zenbat ari dira lanean kontrol horren arabera jaso beharreko sari edota zigorrik gabe? Edo, gutako edonork bere buruari egin diezaiokeen galdera, noiz arte izan daiteke bertutetsu kontrol eta saririk gabe?

Ez naiz ni kazetariaren hizkuntz protagonismoaren aurkako; alde-rantziz, oso aldeko baino. Gure erredakzioetan "filologoaren sindromea" zabaldukea dagoen honetan, beti egingo dut nik kazetariaren aldeko apostu. Baina ez nolana hiko kazetariarena, baizik eta euskara eta kazetari-hizkuntza on baten jabe den kazetariaren aldeko apostu.

Hau esanik, ez dut uste, adibidez, halamoduzko euskara darabilen kazetariari bere aldamenean itzultzaile edo filologo bat jarriz arazoa konpon dezakegunik, ez behintzat bere osotasunean. Lehen esan bezala, kazetariarena da albistea eta honenbestez, harena baita ere hizkuntza protagonismoa. Beraz, kazetariaren hizkuntz eta komunikazio-gaitasuna hobetzea izango da lehen helburu.

Eta, hori horrela, euskararen arazoa ez da elementu soil bezala hartu behar (zuzenketarako prestatzen den gai bat bezala, adibidez), baizik eta euskal komunikabideen erabateko kalitate apostuaren elementu bezala kontsideratu behar da. Beraz, kazetaria bere albistegintzan eta bere komunikazioan aztertuz egin behar da hark darabilen euskarari buruzko azterketa ere. Esan nahi dudana da, hizkuntzaren tratamendua kalitate hobekuntzaren baitako elementu bezala planteatu behar dela gure komunikabideetan, eta, ondorioz, euskararen exigentzia lan-planteamendu berri bat bezala asumitu beharko dela enpresa barruan.

Honek, noski, zuzen-zuzeneko zerikusia du kazetari-profesioarekin, profesionaltasunarekin, alegia. Hizkuntzaren kalitatea eta profesionaltasuna elkarri josita daude eta, horregatik, beti dira aurrez aurre eduki beharreko helburu nagusi. Beraz, arazo estruktural baten aurrean geundeko, euskararen erabilera zuzena planteatzen dugunean.